

la perfumería

de Mercadona

2017KO UDAZKENA

**ESTREINATU
URTAROA**
*berritu edertasun-
kodeak eta aldatu
tonuz*

**HIDRATATU,
LEHENERATU
ETA LIRAINDU
AURPEGIA**

5 *keinu azal
distiratsu bat
lortzeko*

**BERRIRO
ESKOLARA**
*Prest datorren
ikasturterako?*

Udazkena
beauty UNEAK

STYLIUS


PROFESIONAL



argán
oil
KERATINA
ETA
JOJOBAREKIN

deliplus





aurkibidea

04 BOST KEINU AZAL DISTIRATSU BAT LORTZEKO

Elikatu eta suspertu dermisa uda ondoren. Zure aurpegia biziberritzeko bost edertasun-jarraibide erraz. Probatu.

07 DESMAKILLATZEKO PREST

Aktoreen eta *celebrity*en azal bikainaren edertasun-sekretua aurpegia garbitzeko errutina da. Beharrezko urrats hori ondo barneratuta daukagu, baina, badakizu nola egin eta zer produktu diren egokienak zure azal-motarentzat?

10 EDERTASUN-OLIOAK

Boladan dago olio-testurako kosmetika; Kleopatrak jada erabiltzen zuen Antzinako Egipton, eta beti zegoen eder. Halako produktuen boomaren arrazoia da funtzio anitzekoak direla; denerako balio dute: ilea, azazkalak, aurpegia eta gorputza.

12 ILERAKO

Ileak, azalak bezala, udako gehiegikeriak pairatzen ditu. Orain behar du argi-, hidratazio-, kolore-, forma- eta testura-pizgarri bat.

14 BIZARRAREN GARAIA

Eraman, eramaten da; hori bai, leuna, zaindua eta apain-apaina. *Hipster* on bat izateko jakin behar duzun guztia.

16 LIRAINDU AURPEGIA

Atera izeaiozu etekinik handiena: *contouring*, profesional onenen makillaje-teknika, eskura dugu jada. Eta *cushiona*, Asiatic datorren kosmetikako azken joera, gure desira-objektu bihurtu da, zalantzarik gabe.

19 GEISHA

Egin ukitu exotikoak dituen makillaje femenino baten alde. Arreta ezpainek bereganatzen dute, izan akabera matean edo metalikoan. Bi kolorekoa, tonu anitzekoa, efektu degradatua. Jolastu, sortu, modulatu intentsitateak, eta ausartu koloreak nahasten. Geisha bildumarekin, sormenak ez du mugarik!

22 COLOR BLOCK

Ezpainak eta azazkalak denboraldiko tonuetan janzten dira. Kolore-ukituak udazken-bertsioan. Prest?

28 MASKARADA

Ezinbestekoa emakume ororen makillaje-nezeserrean. Atera gaitzke etxetik makillaje-oinarririk gabe, baina betile-maskararik gabe ez, sekula. Maskara aplikatzeko jakin behar duzun guztia, eta betileak luzatzeko edo haiei bolumena emateko trikimailuak.

33 IKASTURTE BERRIA

Prest datorren ikasturterako? Hartu gogoan zer behar duten etxeko txikiak lehenengo eskola-egunez ahalik eta gehien gozatzeko.

Argitaratzailea: MERCADONA SA
Fuente del Jarro industrialdea
C/ Ciudad de Liria, 5. 46988 Paterna / Valencia
Egilea: Ediciones ELCA
Inprimaketa: Jiménez Godoy
Lege-gordailua: TO-0789-2008

Aldizkari honetan agertzen diren produktuak Mercadonaren eskaintza estandarrekoak dira. Leku-arazoak direla eta, baliteke noizbait produkturen bat ez aurkitzea. Arren, galdetu gure langileei.
Doako alea; debekatuta dago saltzea edo merkaturatzea.
© Aldizkariaren titularrak MERCADONA SA da. Eskubide guztiak erreserbatuta daude. Debekatuta dago aldizkaria baimenik gabe erabiltzea, osorik zein partzialki, eta/edo erreproduzitzea, bai eta markak eta/edo logotipoak erabiltzea ere.



Azalean

Modeloak hauek ditu:
Longitud Xtrem Geisha 05 zk. gorri-morea betile-maskara, Intense Eyeliner 01 zk. beltza, Geisha 02 zk. teila metalikoa ezpainetako lausotzailea.

1 Booster-a

Izango duzu aditzera; boladan dago, eta erabilerraza da. Beste kosmetiko batzuren eragina indartzen duten anpoilak dira, eta azalaren premia jakinen bat asetzeko erabiltzen dira. Mota hauetakoak daude: adinaren aurkakoa, argitzailea, detoxa... Haiek erabiltzeko, kontzentratuaren edo boosteraren tanta batzuk erants dakizkioke ohiko tratamenduari, edo bereiz aplikatu daitezke eragina areagotzeko. **Khanya aurpegirako anpoilak, eguneko eta gaueko kontzentratua**



1

2 Plus bat

Argitasun-serum C bitaminaduna bereziki egokia da argia eta bizitasuna berreskuratzeko premia gorrian dauden azal itzalientzat. Aplikatu aurpegiko ohiko kremaren aurretik behar duzun gehigarri hori emateko, edota nahasi zure kremari tanta batzuk.



2



3

4



5



5 keinu azal DISTIRATSU bat lortzeko

Elikatu eta suspertu dermisa uda ondoren. Zure aurpegia biziberritzeko bost edertasun-jarraibide erraz. Proba ezazu

3 Funtsezko urratsa: hidratatu

Tinkotasuna, nutrizioa eta argitasuna azalarentzat **Sisbela Cosmetics-en Diamond indargarri eta birsortzailearekin.**

4 Gaztetu begirada

Gogoan izan garrantzitsua dela begien ingurua berariazko produktuekin zaintzea. **Begi-inguruko krema aloe veraduna,** hidratatu eta birsortu egiten du.

5 Zure apain-mahaiko oinarrizko produktua

Hotzaren ondorioz edo leku itxietako berogailuaren ondorioz, azala gehiago lehortzen da urte-garai honetan. **Dermik olo-urak** azala baretzen laguntzen du, eta tenkatasuna eta azkurak saihesten ditu. Erabili egunero aurpegia garbitu ondoren edo zure ohiko krema eman aurretik, gauez eta egunez. Aurpegia hidratatuko duzu, eta freskotasun- eta ongizate-sentsazioa lortuko duzu bat-batean. Beste edozein kosmetiko baino erabilera gehiago ditu; gainera, makillajea finkatzen laguntzen du.



balm me deliplus COLOR

Edizio mugatua

balm
me deliplus
polvo compacto
textura balsamo

balm
me deliplus
polvo compacto
textura balsamo

Hauts trinkoa
Balsamo-testura



DESMAKILLATZEKO *prest*

Aktoreen eta *celebrityen* azal bikainaren edertasun-sekretua aurpegia garbitzeko errutina da. Beharrezko urrats hori ondo barneratuta daukagu, baina, badakizu nola egin eta zer produktu diren egokienak zure azal-motarentzat?

Azala zaintzeko oinarria garbiketa da. Ondo garbitu behar da egunean bitan: goizean eta gauean. Makillajerik ez badaramagu ere, aurpegian metatu den lohitasuna eta zikinkeria kendu egin behar dugu egunaren bukaeran.

AZAL-MOTA GUZTIAK

Aurpegia garbitzeko esne hidratatzaileak sakon garbitzen du, leundu eta hidratatu egiten du. Bukatu garbiketa-errutina **aurpegi-toniko hidratatzailearekin**, kutisa freskatu, indartu eta hidratatu egiten baitu bere aktibo lasaigarri eta antioxidatzaileei esker.



AZAL SENTIKORRAK

Urtaro-aldaketarekin, azala sentikorrago dago, eta, batzuetan, baita ahul ere. Aukerarik onena **Dermik ur garbitzaile mizelarra** da, eragile lasaigarriekin aberastua; keinu bakar batean garbitzen eta desmakillatzen du. Dena batean duen produktu hau azal-mota guztientzat dago gomendatuta, baina, bereziki, sentikorrenentzat, haren mizelek arinki arrastatzen baitute zikinkeria.

AZAL MISTOAK

Komeni da astean behin edo bitan aurpegia esfoliatzea, zelula hilak eta lohitasunak kentzeko. Azal lisoa eta leuna, abrikot-mikrogranulo naturalak dituen **Aurpegiko esfoliatzailearekin**.



AZAL KOIPETSUAK

Delipus-en **oil free** berariazko zaintzaren lerroa ezin hobea da mota horretako azalentzat. Funtsezkoa da halako azalaren beharretara egokitutako produktu batekin garbitzea aurpegia, ahal dela zikinkeria eta gantza arrastatzen dituen xaboi batekin. **Oil free gel garbitzaile purifikatzaileak** zaindu eta garbitu egiten du azal koipetsua. Hobe da garbitzean ez igurzte, gantz gehiago sortuko baituzu; garbitu xaboiarekin eta lehortu leunki. Aurpegia garbitzen bukatzeko, **Oil free lozio garbigarria**: haren jarduera lehorgarri eta araztaileak poro dilatatuak ixten ditu, mate-itxura ematen du, eta puntu beltzak eta zaldarrak agertzea eragozten du.

BEGIAK ETA EZPAINAK

Lehendabizi, kendu makillaje-hondarrak begietatik eta ezpainetatik berriazko produktu batekin. **Begietako desmakillatzaileak**, gel-testura atsegina duenez, leunki kentzen du makillajea betile eta betazaletatik.

Begietako eta ezpainetako desmakillatzailearen formula bifasikoari esker, sakon garbitu daitezke begiak eta ezpainak, hidratatu egiten ditu, eta ez du koipe-sentsaziorik uzten.



EROSOTASUNA

Aurpegiko eta begietako makillajea kentzeko paper-zapiak, azal lehorrentzat eta sentikorrentzat.

Praktikoak eta erabilerrazak, haien formatu eta testura leunari esker, aloe vera baitute.

Modeloak Color Fix 06 zk. errubi-gorria darama.



OLIOAN

Garbitu, zaindu eta hidratatu aurpegia, ezpainak eta begiak **Gold Progress makillajea kentzeko olioarekin.**

Gogoratu

- ✓ Azala ez bada ondo garbitzen, ondoren ematen ditugun kosmetikoen eragina erdira jaisten da.
- ✓ Erabili ur epela zikinkeria-hondarrak ondo kentzeko, eta, garbiketa amaitzean, ur hotza odol-zirkulazioa biziberritzeko eta aktibatzeko. Inoiz ez ur beroa, azalak duen babesgarri naturala kentzen baitu, eta azala narrita baitezake.

Edertasun **OLIOAK**



Olio-testurako kosmetika dago boladan; Kleopatrak jada erabiltzen zuten Antzinako Egipton, eta, kroniken arabera, oso eder egoten zen. Halako produktuen boomaren arrazoia da funtzio anitzekoak direla; denerako balio dute: ilea, azazkalak, aurpegia eta gorputza.



MAISU-UKITUA

Secreto de Belleza olio lehorrak ere ilea leuntzen laguntzen du. Ilea lehorra duzula, jarri pixka bat esku-ahurretan, eta igurtzi leunki. Ilea latzari edo gehiegizko bolumenari aurre egiteko erabil dezakezu. Puntetan ere eman dezakezu, haiek zigilatzeke eta ez hondatzeko.



1 Ukitu lehorreko gorputz-olioa

Azala hidratatzen eta elikatzen du, elastikotasuna ematen dio, eta ez du koipe-sentsaziorik uzten. Azal distiratsua edukiko duzu, lore-lurrin espeziadun hordigarriarekin.

2 Gorputzeko krema-olioa

Kremaren testura atsegin baduzu, baina olio baten akabera nahi baduzu hidratatzeko, izugarri gustatuko zaizkizu Deliplus krema-olioak. Azala elikatzen du arroz-olioa eta glizerina uztartuz. Haren lurrinak (ekialdekoa edo lore zuriena) erritual batean bezala inguratzen zaitu.

3 Arbendol gozoen olioa

Bere ahalmen birsortzaileagatik eta hidratatzaileagatik da ezaguna, eta egokia da azal kaltetueterako eta deshidratatueterako. Olio honek testura leuna du, eta erabilera ugarien duenetako bat da, hidratatu eta lehortasunari aurre egiten baitio puntu jakinetan, narritadurak baretzen baititu, eta azala lasaitzen baitu eguzkitan egon ondoren.

4 Erromero-olioa

Milaka urteko erremedio honek xede ugari ditu, hala nola azala zaintzea eta indartzea. Ezin hobea da gorputzeko masaje erlaxatzaile eta indartzaileetarako, eta, bere testurari esker, mugimendu leunekin eman daiteke, ongizatea eragin dezan eta zirkulazioa aktiba dezan. Leundu eta hidratatu ere egiten du.

5 Gold Progress Secreto de Belleza olio lehorra

Beste urrats bat: produktu horrek, gorputzerako ez ezik, aurpegirako ere baditu onurak. Dena batean duen produktu praktiko hori esprai eroso batekin ematen da, eta lurrin gozo bat uzten du. Haren testurak ez du koipe-sentsaziorik uzten, eta azkar xurgatzen da.

6 Txori-arrosaren olio birsortzailea

Aurpegiko azalak, hotzari aurre egiten dionean, nutrizio intentsiboa behar du. Dermik txori-arrosaren olio birsortzaileak itxura bizia itzultzen dio azalari. Eguzkiak jotzen dien edo erraz lehortzen diren gorputzeko ataletan ere erabiltzen da, hala nola ukondoetan, belaunetan eta besoen kanpoaldean.

7 Te-zuhaitzaren olioa

Hainbat eta hainbat onura eta erabilera ditu. Ilikeo gehiegizko koipea erregulatzen laguntzen du xanpua bizpahiru tanta eransten badituzu; gauza bera zahia tratatzeko; noizbehinkako aknearentzat, nahikoa da tanta-pare bat diluitzea uretan, edota aurpegiko garbitzailearekin nahastea. Oinetako azakaleko onddoak tratatzeko, ezpainetako herpeserako, hats freskoa izateko... eta zorriei aurka egiteko... nahikoa da tanta-pare bat, betiere baselinan, hortzetako pastan, xanpua eta abarretan disolbatuta.

Ilerrako

Ileak, azalak bezala, udako gehiegikeriak pairatzen ditu. Orain behar du argi-, hidratazio-, kolore-, forma- eta testura-pizgarri bat.

Modeloak ilea lehortzeko turbante-toalla zuria darama.





ILEA HIDRATATZEKO ERRITUALA

Ile lehorra edo kaltetua zaintzeko, hautatu **tratamendu berreraikitzaile erabat surpertzalea**; eman ile bustian hatz-mamiekin erdibidetik puntetara (gehiago eman eremu kaltetuetan).

Ondoren, hezetu ur beroarekin **ilea lehortzeko turbante-toalla**, eta kiribildu buruan. Eduki ezazu horrela, gutxienez, minutu batez; kendu tratamendua ur askorekin, eta adats distiratsua izango duzu.

TRIKIMAILUA

Emaizta hobea lortzeko, mikrouhin-labean berotu daiteke ilea lehortzeko turbante-toalla: betiere, hezea, gehienez 800 W-eko potentzian, eta, gehienez, minutu batez.




EMAN KOLEOREA

Deliplus kolore iraunkor kolagenoduna, ile leunagoa eta distiratsua: 38 tonu aukeran.

Ile bikaina

Ez garbitu gehiegi; koipea hartzen eta forma galtzen hasten dela ikusten duzunean, erabili **xanpu lehorra**. Koipe gehiegi sortzea saihestuko duzu, eta bolumena eta testura emango dizkiozu. Biharamunean, beti bezala garbitu, urarekin eta xanpuarekin. Garbitzeko bi moduak uztartzea da onena; ez da komeni bietako bat gehiegi erabiltzea. O'Lysee xanpu lehorrak arroz-almidoia du, sobera dagoen koipea xurgatzen duen aktibo natural bat. Erabiltzeko erraza da: ile lehorrean ematen da, ihintzapen laburrekin ilearen erroa lurruneztatuz; bere horretan utzi behar da bi minutuz, eta ondo orraztu behar da ilea hondarrak kentzeko.



BIZARRAREN garaia

Eraman, eramaten da; hori bai, leuna, zaindua eta apain-apaina.

Hipster on bat izateko jakin behar duzun guztia.

✓ Bizarra, bai horixe!

Funtsezkoa da ondo zaindua eta estiloarekin eramatea. Joan zaitez maiz bizarginarengana, beti ezin hobeto egon dadin. Garbitu ezazu, eta eman berariazko produktu hidratatzaileak, bizarreko ilea burukoa baino lehorragoa izaten baita. **Bizarreko xanpua 2 batean**, te-zuhaitzaren eta zedro-egurraren olioarekin; aurpegia garbitzeko ere erabil daiteke. Eta hidratatzeko eta azkura prebenitzeko, **bizarreko olio**.



✓ Eguneroko babes

Gizonezkoentzako esprai eta roll-ondesodorante ikusezinak, orban zuri eta horien aurkakoak. **Plus babes** **esprai eta roll-on desodorantea**, eraginkortasuna eta kontrola. Haren eraginkortasuna bermatzeko, azal garbi eta lehorrean ematea komeni da. Roll-on edo esprai izan, besape bakoitzean eman behar da goitik behera hiru aldiz, estaldura ona eta uniforme lortzeko. Lehortzen utzi jantzi baino lehen.



✓ Aurpegiko hidratazioa

E bitaminarekin, aurpegiko azala babesten eta hidratatzen du, eta leuna eta tenkatua uzten. UV eguzki-iragazkiak ditu; gainera, ingurumen-faktoreek edo bizarra mozteak eragindako narritadurak baretzen ditu. Eman egunero, egunez eta gaez, azala garbia duzula. **9.60 krema hidratatzaile babeslea**.

✓ Zure azalarentzako freskotasuna

Sport Water 9.60 Acción lurrina, freskoa eta ezinbestekoa eguneko edozein ordutan.



GEISHA

deliplus
COLOR




Ezpainetako lausotzaileak,
akabera metaliko eta matedunak

Betile-maskara,
tonu gorri-morekoa

Azazkal-laka,
gel-efektukoa

EDIZIO MUGATUA



Liraindu AURPEGIA

Badakizu nola atera etekinik handiena?

Contouringa, profesional onenen makillaje-teknika, eskura dugu jada.

Eta *cushiona*, Asiatik datorren kosmetikako azken joera, gure desira-objektu bihurtu da, zalantzarik gabe.

Argi-ilunaren teknika

Contouringak gero eta jarraitzaile gehiago ditu: aukera ematen dizu aurpegitik gutxien gustatzen zaizkizun puntuak zuzentzeko edo disimulatzeko, eta gehien gustatzen zaizkizunak nabarmentzeko. **Pro Duo Contouring Blushion** paletak bi tonu ditu, bata argia eta bestea iluna, eta haiek aplikatzeko belaki bat eta ispilu bat ere baditu. Paleta horri esker, argiekin eta itzalekin landu dezakezu aurpegia: tonu ilunak ingeradak zehazten ditu, eta argiak hazpegiak nabarmentzen ditu eta argitasuna ematen du.

Haiek eman ondoren, difuminatu brotxaren laguntzaz. Hasteko, marra ilunak egin ditzakezu aurpegiaren inguruan, lokietan eta sudurraren alboetan. Ondoren, argitu tonu argiarekin nabarmendu nahi dituzun aurpegiko eremuak; adibidez: sudur-trenkada, masailak, goiko ezpainaren gaina, kokotsa...

Azkenik, difuminatu, bi tonuak bateratzen saiatuz. Ondo egindako *contouringak* sudurra mehetu dezake, masailezur irtena disimula dezake, bolumena eman diezaieke masailei, begirada erori bat altxa dezake, lepoa mehetu dezake, aurpegi-obaloa birdefini dezake...





Belakitxo magikoa

Eduki nahi duzu azal leun-leuna eta argiz betea? Seguru jada ezagutzen duzula "cushionmania"; kosmetikako azken joera, denok nahi duguna, Asiatic dator. Makillaje-oinarrian edo koloretean bustitako kuxintxoak.

Blushion Cushion makillajeak, haren testura jariakorrak, hura emateko erraztasunak eta haren *packaging* berritzaileak –ispilua eta ordekoak ditu– goitik behera aldatu dute makillaje-oinarriaren kontzeptua. Urgarria, naturala eta arina da, eta hiru tonu daude aukeran. Gainera, eguzkitik babesten du FPS35+ekin.

Blushion Cushion koloretea freskoa eta argitsua da, eta erraz ematen da, haren formatuari eta testurari esker. Masailak naturaltasunez nabarmentzen ditu, eta azalarekin bat egiten du. Hiru kolore daude aukeran: arrosa, korala eta brontzea. Graduatu daiteke intentsitatea.

ERABILERA-GIDA

- ➔ 1 Egin presioa belakiari makillajearen edo koloretearen bustitako kuxintxoaren gainean.
- ➔ 2 Eman aurpegian ukitu txikiekin, haren intentsitatea eta estaldura modulatu. Makillajea naturalki nahasiko da, akatsak estaliko ditu, eta, aldi berean, azalari argitasuna eta arintasuna emango dizkio.
- ➔ 3 Noiznahi eta nonahi egin ditzakezu ukituak; berrerabili eta konbinatu makillajea edo koloreteak, tonu bat baino gehiago erabiliz.




Lortu makillaje hau baltsamo hidratatzailearen efektua duen Balm Me hauts trinkoarekin, Intense Eyeliner 01 zk. beltzarekin, Geisha ezpainetako lausotzaile 04 zk. su-gorriarekin eta Longitud Xtrem Geisha 05 zk. gorri-morea betile-maskarekin. Azazkaletan, Geisha esmalte 790 zk. gorria.

Geisha

Egin ukitu exotikoak dituen makillaje femenino baten alde. Arreta ezpainek bereganatzen dute, izan akabera matean edo metalikoan. Bi kolorekoa, tonu anitzekoa, efektu degradatua. Jolastu, sortu, modulatu intentsitateak eta ausartu koloreak nahasten.

Geisha bildumarekin,
sormenak ez du mugarik!



1 Bolumen-jokoa

Matea eta metalikoa: bi akabera bikain ezpainen bolumenarekin eta dentsitatearekin jolasteko. Bolumen handiagoaren efektua eta argi-ukitu polit bat emateko, hautatu tonu mate bat ezpainen ertzetarako, eta eman tonu metaliko bat ezpainen erdian. Edota konbinatu akabera berekoak: kasu honetan, goiko ezpainean eta beheko ezpainaren ertzetan, Geisha ezpainetako lausotzaile 04 zk. su-gorria darama, eta, beheko ezpainaren erdian, Geisha ezpainetako lausotzaile 03 zk. gorri bizia.

Baltsamo-testura duen Balm Me hauts trinkoa

2 Degradatua

Eman produktua ezpainen inguruan ezpainetako arkatz bat izango balitz bezala; ondoren, bete, eta, hortik aurrera, arrastatu edo difuminatu ezpainetako ertzetik erdira. Geisha ezpainetako lausotzaile 02 zk. teila metalikoa.



Geisha ezpainetako lausotzaileak: 01 zk. fuksia metalikoa, 02 zk. teila metalikoa, 03 zk. gorri bizia eta 04 zk. su-gorria

BAZE-NEKIEN...?

Stick formatuko ezpainetako lausotzaileak belaki-aplikagailu bat du, leunki eta sotilki makillatzeko. Produktua tapoian dago; hala, ontzia itxita dagoela, belakia eta ezpainetako elkar ukitzen ari dira etengabe. Hauts gelifikatuaren testurak geruza mehe eta leun batez estaltzen ditu ezpainak; hala, zaindu egiten ditu, erosotasun-sentsazioa ematen du, eta luze irauten du.



Longitud Xtrem Geisha
betile-maskara 05 zk.
gorri-morea

MAISU-UKITUA

Tonu gorri-more politeko betile-maskarak argi- eta exotismo-ukitu bat ematen dio makillajeari; bakarrik eman daiteke, edo ohiko maskararen gainean. Gogoan izan asko irauten duela, eta produktu bifasiko bat erabili behar dela hura behar bezala desmakillatzeko.



Geisha esmalte
790 zk. gorria



Geisha esmalte
791 zk. ardoa

3 Bi koloretako ezpainak

Konbinatu koloreak eta akaberek; kasu honetan, eman goiko ezpainean Geisha ezpainetako lausotzaile 03 zk. gorri bizia, eta, behekoan, Geisha ezpainetako lausotzaile 01 zk. fuksia metalikoa.

4 Tonu anitzekoa

Goiko ezpainaren ezker aldean, Geisha ezpainetako lausotzaile 01 zk. fuksia metalikoa; eskuinaldean, Geisha ezpainetako lausotzaile 04 zk. su-gorria. Beheko ezpainaren ezker aldean, Geisha ezpainetako lausotzaile 03 zk. gorri bizia, eta, eskuinaldean, Geisha ezpainetako lausotzaile 02 zk. teila metalikoa. Lortu kolore anitzeko ezpain deigarriak eta originalak 4 Geisha koloreak emanez; emaitza ikusgarria da.

EKIN ETA EKIN

Lortu
nahi duzu look
hau? Eman itzazu Perlada
begi-itzal 03 zk. grisa eta
Longitud Xtrem betile-maskara
01 zk. beltza, begirada handitzeko;
ezpainetan, barra krematsu 03
zk. beix perla; eta, azazkaletan,
Udazken bildumako esmalte
789 zk. granatea.

**COLOR
BLOCK**

*Ezpainak eta azazkalak
denboraldiko tonuetan
janzten dira. Kolore-ukituak
udazken-bertsioan. Prest?*



HOTZAREN ERREGEA

Beltza

da, baina, badakizu nola atera etekinik handiena? Jantz zaitez kolore horrekin, eta eman ukitu difuminatua betazalei itzal mate 02 zk. beltzarekin; betileetan, Longitud Xtrem maskara 01 zk. beltza; eta, masailetan, kolore anitzeko koloretea. Ezpainak eta azazkalak, tonu leunagoetan_ arrosa argian eta morean. Ezpainetako barra krematsu 13 zk. morea, eta, azazkaletan, Udazken bildumako esmalte 788 zk. arrosa eta 786 zk. lila, eta azazkaletako dekorazioak.



ERAMAN NAZAZU ZUREKIN

Hauta ditzakezu kolore ilunak ezpainetarako eta azazkaletarako; hartu gogoan look-a! Ezpainetako barra mate 20 zk. morea, eta Udazken bildumako azazkal-esmalte 785 zk. urdina. Lehorra&Bustia itzal 06. marroi naturala, begirada leuntzeko; makillaje dotorea eta estiloduna lortzea da helburua.

MAISU-UKITUA


Belusezko
ezpainak,
perfekzio
iraunkorra,
akabera matea
eta pigmentazio
handia.

Halakoxea
da Color Fix
ezpainetako
barraren iraupen
luzeko formula
krematsua.

ESKATU DESIRA BAT...

Iribarre
zabal batez eta

ezpain gorri polit batzuez harro
egotea. Lasai, esango dizugu nola:
lehendabizi, nabarmendu ezpainak 8 ordu
ere irauten duen gel-testurako ezpainetako
arkatzarekin, eta, ondoren, bete Color Fix barra
06 zk. errubi-gorriarekin. Betazeletan, Mate
itzal 07 zk. marroia. Azazkalak, osagarri, berde
ilunak izango dira: Udazken bildumako
esmalte 787 zk. berde militarra.



1. LOOK-A. (2) Perlada begi-itzal 03 zk. grisa / (16) Ezpainetako barra krematsu 03 zk. beix perla / (15) Udazken bildumako esmalte 789 zk. granatea.
 2. LOOK-A. (3) Mate itzal 02 zk. beltza / (17) Longitud Xtrem maskara 01 zk. beltza / (5) Kolore anitzeko koloretea / (8) Ezpainetako barra krematsu 13 zk. morea / (14) Udazken bildumako esmalte 788 zk. arrosa eta (12) 786 zk. lila / (6) azakaleko dekorazioak.
 3. LOOK-A. (7) Mate ezpainetako barra 20 zk. morea / (11) Udazken bildumako azakal-esmalte 785 zk. urdina / (4) Lehorra&Bustia itzal 06 zk. marroi naturala.
 4. LOOK-A. (1) Mate begi-itzal 07 zk. marroia / (9) 8 ordu ere irauten duen gel testurako ezpainetako arkatz 105 zk. errubi-gorria / (10) Color Fix 06 zk. errubi-gorria / (13) Udazken bildumako esmalte 787 zk. berde militarra.

CUIDADO deliplus

DESODORANTEAK



ERRESPEATU
ZURE AZALA



EMAKUMEENTZAT



UNISEX




MASKARADA



Ezinbestekoa emakume ororen makillaje-nezeserrear

Atera gaitzke etxetik makillaje-oinarririk gabe, baina betile-maskararik gabe ez, sekula. Maskara aplikatzeko jakin behar duzun guztia eta betileak luzatzeko edo haiei bolumena emateko trikimailuak kontatuko dizkizugu.



Egunero erabiltzen ditugu, baina oraindik ez daukagu nahikoa informazio ezinbesteko kosmetikoari buruz. Mercadonako lurrindegian, ezin konta ahala maskara ditugu, baina bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Bi taldetan sailkatu daitezke: definizioa eta bolumena.

Definizioa

LONGITUD XTREM MASKARA

Definizioa, bereizketa eta luzera ematen ditu. Egun osoz irauten du. Emateko erraza eta eroso. Iraupen luzeko formula, bi koloretan: beltza eta urdina. Gogoan izan produktu bifasiko bat erabili behar dela hura behar bezala desmakillatzeko.

Bolumena

MAXI VOLUMEN MASKARA

Mini-eskuila bolumen handiena lortzeko. Ezin hobea mota guztietako betileetarako, bereziki laburrenetarako. Eskuilaren tamainari esker, betile guztietara iristen da, baita laburrenetara eta ezkutuenetara ere. Bi kolore aukeran: beltza eta marroia.



4 DIMENTSIOTAKO BOLUMENA

Egunerokorako bolumena, azkarra eta eroso. Betileak malgu uzten ditu, eta aukera ematen du egunean zehar nahi adina aldiz emateko. Bi kolore aukeran: beltza eta berdea.



Bekainetako maskara

Bekainetako kita

Bekainetako duoa, arkatza eta bekainetako eyeliner automatikoa

Zure aliatuak

Badakizu begirada nekatu bat berehala hobetzen dela maskara on batekin eta kizkurgailuarekin? Betile politek ondo definitutako bekainak izan behar dituzte lagun; gogoan izan hori izango dela zure makillajeari emango dizkiozun maisu-ukituetako bat.



Betile-kizkurgailua
(zenbait kolore aukeran)

GOMENDIOA

Erabil dezakezu **maskara gardena** betileei dentsitatea emateko edo bekainak finkatzeko.





Eyliner-a

Osatu look-a *eyliner*arekin egindako marra magikoarekin. Erraza da erabiltzen; praktika besterik ez da behar. Arkatza, gela, testura likidoa... *eyliner*-mota asko daude; hautatu errazen erabiltzen duzuna eta eroso sentiarazten zaituena.

EYELINER LIKIDOA

Haren izenak dioenez, testura likidoa du. Halako *eyliner*ak trazu laburrekin ematen dira. Lerro oso finak eta zehatzak egin daitezke. Bereziki gomendagarria da azal arrunt eta lehorreko betileetarako. Ez da begi barruan eman behar. **Intense Eyliner.**



EYELINER GELA

Berez, gel-testura duenez, erabiltzeko errazagoa eta erosoagoa da. Pintzel batekin erabili behar da beti: aukeran, hobe da pintzel alakatua edo punta biribil oso fina duena. Lodiera infinituak sortzeko eta intentsitatearekin jolasteko aukera ematen du. Iraupen luzekoa denez, ezin hobea da koiperako joera duten betazaleetarako.

BEGIETAKO ARKATZA

Hori da gehien erabiltzen dena, eta, automatikoa denez, bereziki eroso da. Nahi izanez gero, difuminatu egin daiteke, begi-itzal baten antzeko emaitza lortzeko moduan. **Eclipse begietako arkatzak**, gainera, ezaugarri hauek ditu: gel-testura, 24 ordu ere irauten du, *waterproof*. Erabil daiteke begi barruan, baina ez zaie komeni begi sentikorrek dituztenei.

PREBENTZIOA



uxagarria

Eman **uxagarria**,
zorriak kutsatzea saihesteko
eta/edo prebenitzeko

ZORRIAK HAUTEMANDAKOAN



xanpua + bartz-orrazia

URRATSA 1

Garbitu ilea **xanpu pedikulizidarekin**,
eta utzi

🕒 10/15 min

URRATSA 2

10/15 min
horiek igarotakoan,
kendu tratamendua
ur askorekin

URRATSA 3

Askatu ilea
eskuilarekin, eta
ondo-ondo orraztu
ile-motots guztiak
bartz-orraziarekin



BERRIRO ESKOLARA

Txirikordak,
mototsak, motoak...
bildu haurraren ilea
haurrentzako osagarriekin.

Prest datorren ikasturterako?
Hartu gogoan zer behar duten etxeko
txikiek lehenengo eskola-egunez
ahalik eta gehiena gozatzeko.



Ilerako

Frozen orrazteko eskuila
eta ileko osagarriak.



Haur txikientzako lurrina

Ur lurrindua,
lore-ukituekin.



Haurrentzako lurrinak

Prodigiosa eta Patrulla Canina
gorputzeko espraiak.



Bere gauzentzat

Haurrentzako nezeserrak, marrazki bizidunetako pertsonaia gustukoenerkin.

Dutxan...

Haurrentzako pertsonaia dituzten bainuko belakiak: **Frozen eta Spiderman.**



Haur txikientzat

Haur txikien azal delikatuak zaintza eta higiene bereziak behar ditu. **Haur txikientzako paper-zapi fresko eta lurrinduek** hidratazioa eta leuntasuna ematen dizkiote haien azalari. 80 aleko 3 paketeo packa; beste neurri batzuetakoak ere badaude.

Zure seme-alabentzako defentsa gehiago

Haurrentzako erregina-jelezko eta propolizko anpoilak.



Gorputzeko krema-olioa

Azal leun eta ondo elikatua



Olio bihurtzen den krema
deliplus

